



**HAMABI ETA HEMEZORTZI URTE BITARTEKO NESKA
GAZTEAK KIROL PRAKTIKA UZTERA ERAMATEN
DITUZTEN ZERGATIAK ETA ARAZO HORRETAN
ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK**

"ITXASO" PROIEKTUA

Kirol federazio eta klubak kudeatzeko arloa

Donostia, 2002ko Abendua



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes

Kirolarte
KIROLETAN
KALITATEA

PROGRAMA PARA LA
MEJORA DE LA
GESTION DEPORTIVA



Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska gazteak kirol praktika uztera eramaten dituzten zergatiak eta arazo horretan esku hartzeko proposamenak

Proiektuaren arduradunak:

- Carmen Diez Mintegi (Antropologoa. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. EHU)
- Rosa Guisasola (Kiroletako Psikologoa)

Ikerketa egin duten bekadunak:

- Marivi Manrique. (Antropologia Sozialaren Saila. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. EHU)
- Arantza Rojo (Antropologia Sozialaren Saila. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. EHU)

Proiektuaren batzordea:

- Carmen Diez Mintegi (Antropologoa. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. EHU)
- Lourdes Gorospe (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Rosa Guisasola (Kiroleko Psikologoa)
- Marivi Manrique (Antropologia Sozialaren Saila. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. EHU)
- Arantza Rojo (Antropologia Sozialaren Saila. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. EHU)

Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska gazteak kirol praktika uztera eramaten dituzten zergatiak eta arazo horretan esku hartzeko proposamenak

Sarrera

Proiektu hau KIROLARTEKO federazio eta klubengestiorako arloari dagokio, eta ondokoen elkarlanari esker eginda: batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako departamentuko Kirol Zerbitzuari esker, eta bestetik, Euskal Herriko Unibertsitateko filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Antropologia Arloari.

Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska gazteek kirol praktika uztearen arazoa aztertzen da lan honetan, eta uzte hori ez da Gipuzkoan bakarrik gertatzen, Europan ere oro har gertatzen baita.

Garrantzi handikoa da aipatzea lan honekin azterketa eta esku hartze alor bat irekitzen dugula, nesken kirolari dagokiona; izan ere, orain arte gutxi aztertu da eta aurrerantzean beharrezkoa izango da behar bezala sakontzea.

Estudio honen helburua neska gazteek kirol jarduera uzteko dituzten zergatiak aztertzea eta horien jatorriaren diagnostikoa egitea izan da. Era berean, diagnostiko horretan oinarrituz, esku hartzeko proposamenak landu nahi dira, barnean jarduera eta fase ezberdinak izango dituztenak, gizartean hedatzeko eta gazteak eta gizartea oro har, eta erakunde eta kirol klubak ere, arazo horretaz jabe daitezen.

Kirol praktika uztearen sustraia non dagoen aurkitu nahi izan dugu, neska gazteek portaera ezberdin hori hartzeko zein arrazoi dituzten jakin; neska gazteen gustu eta hobespenak zeren edo noren mende dauden eta zerk edo nork determinatzen dituen arakatu dugu; neskei egiten zaien kirol eskaintza aztertu dugu, talde honek –oraindik ere eskubide osoz gizarteratuta egoteko urratsak egiten ari den talde honek– dituen beharrei erantzuten dien edo ez jakiteko.

Neska gazteek kirolarekin duten erlazioa aztertzeko, oinarritzko hipotesi batzuk planteatu ditugu, azterlanaren gida izan direnak. Hipotesi horiek ondoko hauek izan dira:

- 1) Kirolaren munduak duen gizonezkoentzako egitura, klubetan, federazioetan, edo entrenatzaileen arloan ere.
- 2) Neska gazteek eredurik eta bultzagarri espezifikorik ez edukitzea.
- 3) Kirol praktikarekin neskek ez dutela gozatzen pentsatzea; beren emozioen munduak ez du jarduera horretan nahastu nahi.
- 4) Kirol batzuetan dagoen egitura eza eta adin jakin batzuetara iristean kirol batzuk egiten ezin jarraitu izatearekin duen erlazioa.
- 5) Neska gazteentzako programa espezifikoak abian ez jartzea.
- 6) Eskolako kirol praktikaren eta kirol praktika orokorraren arteko lotura eza.
- 7) Lanbide orientabidea lortzera zuzendutako jardueraren eta kirola uztearen artean lotura egotea neska gazteen artean. Unibertsitatean edo lanbide eskoletan kirol egiturarik ez egotea.

Ikerketa hau egiterakoan ikuspegi honek ere gidatu gaitu, alegia, kirola egiten jarraitzea onuragarria dela neska gazteekin zerikusia duten ondoko alderdi hauek hobetzeko:

1) Astialdiko jarduerak gehitzea eta dibertsifikatzea.

Astialdia lan jarduerari eta gizarte antolaketa jakin bati lotutako kontzeptua da. Astialdian bizitzen ikasi egin behar da. Emakumezkoek ez dute astialdia aprobetxatzen, eta berdintasun politikek beren programetan sartu behar dute arazo hori. Lortu behar dugu neska gazteek astialdia aprobetxatzeko ereduak beren barnean sartzea, ikus dezatela kirola egiteari emozioa eta gozamina darizkiola, horrela beren bizi proiektu orokorraren zati bat balitz bezala bizi dezaten kirola.

2) Gizarte sareetan parte hartze handiagoa izatea (elkarte bizitza).

Gazte espainiarren gaineko azken txosteneko datuek (1999) berretsi egin dute neska eta mutil gazteek oso gutxi hartzen dutela parte elkarrean; hala ere, joera orokor horren barruan, kirol elkarrean parte hartzea da indize handienak ematen dituenak, bi sexuen artean alde handia badago ere, mutilen artean %17 eta nesken artean %7 baitira parte hartzen dutenak. Autonomia erkidegoei begiratuta, Euskal Herriko indize orokorrak (%15) gaintu egiten du estatuko batez bestekoa, %12koa baita. Gure balorazioa da horrelako elkarrean parte hartzeak zuzeneko erlazioa duela gizarte sareak aktibatzearekin, gizarteratzeko bide direlako.

3) Gorputz eta adimeneko osasuna hobetzea.

Kirola egiteak mesede egiten dio osasunari oro har, eta arazo espezifiko batzuetarako, anorexia edo bulimia arazoetarako adibidez, emaitza onak eman ditzake, kirol praktikari lotutako bizi eta gorputz ereduak modaren eta moda-pasalekuetako munduko oso bestelakoak direlako maila guztietan, horiek, oro har, emakume objektuaren irudian zentratzen baitira bakarrik. Gorputz eta kirol jarduerak egiteak ekartzen dituen onuren berri eman nahi diegu neska gazteei, beren buruaren estima horrela areago dezaten.

4) Gizarte elkarrekintzako estrategiak ikastea, lan mundurako hobeto preparatzeko.

Emakumezkoak hezkuntzan eta lan munduan sartzeari dagokionez, azken bi hamarraldietan aldaketak gertatu badira ere, lan munduan sartzeko orduan desberdintasunak gertatzen dira oraindik eta neska gazteen langabezia zifrek bikoiztu egiten dute mutilena. Sozializazioa ikuspegi zabal batetik bururatu behar da, hezkuntzari eta familiari beste praktika sozial batzuk eransteko moduan. Kirol praktikak gure egungo gizartean dauden jomuga eta helburuak lortzeari estuki lotutako ikaste mota batzuk ematen ditu.

5) Goi mailako kirolean parte hartzea areagotzea.

Lehentasuneko helburu bat ez bada ere, uste dugu neskek kirolean globalki gehiago parte hartzeak ondorio onak ekarriko dituela lehiaketako kiroleko nesken partaidetzari dagokionez.

Hobekuntza horiek lortzea eta neska gazteek kirol praktikan inplikatzeko lortuko dugu bakar-bakarrik gai horri bere konplexutasun osoan heltzen badiogu eta kirolaren kontestualizazioa historiaren ikuspuntutik egitea onartzen badugu, gizartean duen zeregina eta historia horretan emakumezkoek izan duten lekua eta kirol sistema hori aztertuz. Horrek esan nahi du, Makazaga, Llorente eta Anabitartek (2001)⁽¹⁾ adierazi duten bezala, neska gazteei hautatzeko eta erabakitzeko askatasuna mugatzen dieten baldintza sozial eta kulturalak agerian jarri behar direla eta gure gizartean oso sustraituta dauden topiko batzuei buruz eztabaidatu behar dela:

- Kirola mutilen gauza da.
- Neskek ez dute gustuko lehiatzea.
- Mutilak astakilo batzuk dira eta neskek baldar batzuk.
- Neskek ez dakite talde baten lider izaten.
- Mutilek porrot egiten dute ahaleginik ez dutelako egiten, eta neskek, berriz, gaitasunik ez dutelako.

(1) "La coeducación en el deporte en edad escolar", Emakumea eta Kirolari buruzko Kongresuan aurkeztutako ponentzia, Bilbon 2001eko azaroaren 26,27 eta 28an izandakoan.

Estatu espainiar mailan egin berri den kirola uzteari buruzko azterlan batek seinalatzen duen bezala, neska nerabeena da, "kirola eta ariketa fisikoak egiteko ohiturari dagokionez, partikularki lan egiteko programak behar dituen giza talderik garrantzitsuena"*(2).


Lanaren eta hemen aurkezten diren proposamenen azken helburua neska gazteek pairatzen duten ezberdintasun egoera horretan, inkontzienteki eragin "ez positiboa" duten eta tarteko diren alderdi guztiak kontzientziatzea eta inplikatzea da. Neska gazteek kirolarekiko beren jarrera alda dezaten alderdi horiek guztiak egin behar dute lana, neska gazteak motibatu eta adoretu egin behar baitira, batetik, eta hartu dituzten ohiturak aldatu, bestetik.

Elkarrizketaren metodologia

Azterlana 2001eko urriaren eta 2002ko maiatzaren artean egin da. Metodologia kualitatiboa erabili dugu, eta banakako elkarrizketak egin dizkiegu aztertu nahi dugun gaiarekin zuzenean zerikusi duten lau sektore sozialetako kideei.

Elkarrizketatutako lau sektore sozial horiek ondoko hauek dira:

- Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neskek.
- Eskolako kiroleko koordinatzaile teknikoak.
- Nesken aita-amak.
- Klubetako teknikariak eta zuzendaritzako kideak.



(Fortuna Kirol Klubak utzitako argazkiak)

Azterlanean parte hartu duten ikastetxeetako kirol koordinatzaileek, elkarrizketa egiteko prest egoteaz gain, elkarrizketatutako neska gazteak eta gurasoak ere kontaktatu dituzte, talde horren informazioa bildu den ikastetxeetan.

Kluben eta teknikarien kasuan, zuten karguari edo lanari begiratuta, aztertu nahi genuen garaiekin zerikusi duten pertsonen egin diegu elkarrizketa.

Txosten honen bukaeran azterlanean lagundu duten ikastetxe eta klubetako zerrenda ematen dugu, eskualdeko antolatua. Denek laguntza osoa eman digute, eta esan behar dugu aztergaia oso ongi hartua izan dela, eta hori aztertzeari oso egokia iritzi diotela elkarrizketatutako gehienek.

Elkarrizketa guztiak grabatu genituen eta gero transkribatu; material horretatik abiatuta egin dugu analisia eta prestatu dugu txosten hau, beste zabalago bat laburtuta.

Guztira 121 elkarrizketa egin ditugu; elkarrizketatuen arabera multzotan banatuta, hau da xehekapena:

- 37 elkarrizketa 12-14 urteko neskei
- 34 elkarrizketa 16-18 urteko neskei
- 24 elkarrizketa ikastetxeetako koordinatzaileei
- 17 elkarrizketa 12 klubetako teknikari eta zuzendaritza kideei
- 6 elkarrizketa guraso taldeei
- 3 elkarrizketa kirol munduko pertsonen

(2) Emilia Fernandez, "Algunos interrogantes sobre la práctica de actividades físico deportivas en las mujeres adolescentes y su abandono". Emakumea eta kirolari buruzko Kongresuan aurkeztutako ponentzia, Bilbon 2001eko azaroaren 26,27 eta 28an izandakoan.

Gipuzkoako 16 herritako 24 ikastetxek lagundu digute, guztira.

Ikastetxeak hautatzeko irizpide hauek hartu genituen:

- Eskualde guztietakoak izatea tartean.
- Ikasle asko izatea (inguruaren adierazgarri).
- Ikastetxe publiko/pribatu/erlijioso aldagaia.
- Kirol kategoria hauetan taldeak izatea: benjamin, alebin, infantil eta kadete.

Klubak hautatzeko, tokiaren irizpidez gainera, beste irizpide hau hartu da:

- Aukeratutako kirol garrantzitsuenetan aritzea (saskibaloian, eskubaloian, igeriketan eta atletismoan). Kirolen artean aukera hori egin arren, elkarriketatik aipatu diren beste kirolen egoera ere, bereziki futbolarena, kontuan hartu da.

Elkarrizketak egiteko gidoi bat erabili dugu gidari, jende multzo bakoitzarentzat bereziki prestatua. Gida gidoi horri esker, elkarrizketatutako sektore bakoitzaren barrenean (gazte, eskola kiroleko koordinatzaile, guraso, eta klubetako teknikari) antzeko lerro bat gorde ahal izan dugu, baina aldaketak egiteko aukera eman ere bai, solaskideak gidoiari aurreikusitako gabeko informazioen bat ematen zuela ikusiz gero.

Neska gazteek emandako iritzien laburpena

Hamabi urteko nesketatik hasi eta hemezortzi arterainokoen multzoa oso ugaria eta heterogeneoa da, beraz, kolektibo horren iritziez hitz egiterakoan bereizketa batzuk egin behar dira; izan ere, alde batetik emakumeen kirolaren gizarte egiturazko egoerak denei eragiten badie ere, zenbait berezitasun gogoan hartu behar dira. Faktore garrantzitsuetako bat adina da. Adinari begira bi multzo bereiz daitezke: hamabi eta hamabost urte bitarteko neskena bata, eta hamaseitik hemezortzi urtera bitartekoena bestea. Alderdi hori gogoan izan beharko da gai honetan esku hartzeko politikak diseinatu eta gauzatzen hasteko orduan, eta berarekin batera beste batzuk, hala nola, neska gazteen testuinguru sozio-ekonomiko espezifikoa, zaletasunak eta itxaropenak.

Adinarekin batera, datu interesgarria da, kirol praktika uztearen inflexio puntu edo etenunea hamalau urteen inguruan dagoenez, adin horretatik aurrera kirol jarduerarekin jarraitzea bera. Kasu horretan dauden gazteek informazio baliotsua ematen dute, bai gauza negatiboen aldetik –gainditu behar izaten dituzten oztopoak– eta bai positiboenetik –kirola egiteak dakartzan onura eta abantailak–. Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, lehenbizi hamabi eta hamabost urte bitarteko neskek aipatzen dituzten uzteko motiboak azalduko ditugu; ondoren hamasei urtetik hemezortzira bitarteko alderdi espezifikoagoak; eta, bukatzeko, neska gazte guztienak diren alderdiak.

Hamabi eta hamabost urte bitarteko neskek

Talde honetan, ikasteko denbora beharragatik utzi dutela kirola da aitzakia zabalduena. Gehienetan, ordea, ikasketetan ezin iritsia nabaritu baino lehenago hartzen dute kirola uzteko erabakia, dena ezingo dutelakoan egin. Batzuek aitortzen dute erabaki hori hartu izanaz damutu egin direla, baina behin kanpoan egonda, oso zaila dela berriro sartzea.

Uzteko beste arrazoi garrantzitsu bat, maiz gertatzen delako, taldea ez osatzea izaten da; orduan, taldean sar litezkeen guztiak ezin parte harturik geratzen dira. Gertatu ohi da taldea oso kide gutxirekin osatzea ere; horren ondorioz, gero lehiaketa aurrera doanean bertan behera utzi beharrean gelditzen dira, giza baliabide aski ez dutelako.

Gazte hauek aipatzen duten beste arrazoi bat kirol praktikaren helburuei buruzkoa da. Kexu dira helburu nagusia irabaztea izaten delako, eta berak ez datozelako bat filosofia horrekin. Asko dira entrenamenduak gustatzen zaizkiela esaten dutenak, baina asteburuetan jokatzeko diren partiduak ez zaizkiela gustatzen, goiz jaiki behar delako, eta denbora librea murrizten delako.

Uzteko laugarren arrazoiaren baitan, adin hauetan neska gazteek aukerak egiteko martxan jartzen dituzten estrategien inguruko zenbait alderdi bildu ditugu. Neska gazteek eskolaz kanpoko jarduera asko egiten dituzte –ingeleza, musika, dantza, etab.–, eta denbora antolatzekeo garaian, beren ustez etorkizunerako baliagarriena izango zaienari heltzen diote. Asko dira kirolak gauza baliotsuak ekartzen dizkienik uste ez dutenak; are gehiago kontuan hartuta ezingo dutela gustatzen zaien jardueran aritu, edo eskola kirolaren eskaintza mugatua delako, edo ezingo direlako beren lagun taldearekin egon. Lagunek ezin egotea gerta daiteke, edo lagunak kirolik ez dutelako egiten edo kategoriatu federatuetako ekipoetara joaten direlako.

Azken alderdi horiei buruz kontuan hartu behar da hamalau urteak banalerroa direla nolabait, bai kirolen alorrean –kirol federatura pasatzen dira, baina gehienetan klub hartzaileek ez dute izaten eskola kirolek letozkeen neska guztiak hartzerik– eta bai eskola alorrean –bigarren hezkuntzara pasatzen dira, eta maila horretan oro har eskasa da kirolean egiteko azpiegitura–. Azpimarratu behar da, bai kasu batean bai bestean, aurreko mailetan baino handiagoa dela eskakizuna eta horrek larritu egiten dituela; eta horrekin batera nabarmena da zeinen argi ikusten duten kirolean “onak” direnak bakarrik egingo dutela kirol federatura pasatzeko urratsa.

Hamasei urtetik hemezortzira bitarteko neskek

Adin talde honetan ere, kirol jarduera zergatik utzi duten galdetzean oso maiz erantzuten dute “ez neukan denetarako denborarik”, baina hala ere, gai sakontzerakoan agertzen diren zenbait lerro eta iruzkinetan agerian geratzen da hori askotan ez dela arrazoi nagusia, nahiz eta kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat den.

Zentzu horretan, talde honetan ageri den datu interesgarri bat da kirol praktikak sentsazio positiboan aztarrena uzten diela baldin modu sistematikoan eta erregularitasunez egina izan bada, eta hala izan da askoren kasuan. Horren ondorioz neska askok, behin kirola utzi eta gero, "zerbait egiteko" beharra sentitzen dute; gehienek gimnasioren batean aerobic egiteko izena ematen dute, edo beste jarduera batzuetan hasten dira, hala nola arraunean, eskaladan, piraguismoan, ... Beste batzuk umeen ekipoetako entrenatzaile dira, gehienetan beren ikastetxean bertan.

Gehienetan, horietako edozein jarduerak lehengo kirol praktikak hainbat denbora eskatzen die gutxi gorabehera. Beraz horrek erakusten du denbora ez dela faktore nagusia, eta erantzun errazetik urrutirago joan behar dela.

Gaia sakonago aztertzerakoan beste motibo batzuk agertzen dira. Horietako bat kirola egitearen eta emaitzak eskatzearen arteko lotura da. Gazteek esaten dutenez, aurrera egin ahala presioa oso handia izatera iristen da, eta ez da gozaten. Sentsazio horri gehitu behar zaio, askotan bitartekoak eskas izaten direla, eta ekipo barruan edo entrenatzailearekin arazoak izaten direla (beti gizonetzko entrenatzaileak aipatu dituzte). Kirol eskaintzari buruzko kexuak ere azaltzen dira, kirola egiteko aukerak oso markatuak, zehaztuak edo mugatuak direla pentsatzen baitute. Beste alde batetik kirola nor bere aldetik egitea oso zaila dela uste dute, eta oso beharrezkoa dela diziplina eta entrenamenduak seriotasunez hartzea.

Beste bi gai ere badira gure ustez garrantzitsuak. Lehena bikaintasunarekin lotua dago; hau da, talde honetan gaztetxoagoetan baino are barneratuago ageri da kirolean jarraitzen duten neskek "oso onak direlako" jarraitzen dutela, eta gainerakoak hortik kanpo geratzen direla. Bigarren gaia, beren etorkizunari begira kirolari buruz zer ikuspegi duten da. Horretaz nahiko iritzi zabaldua da kirola bizitzako lehen etapan egingo duten gauza dela, baina gerora, epe luze edo ertainean ez dute uste kirolean arituko direnik.

Egia esan, oso barnean dute adin batera heltzean beste gauza batzuk egiteko gogoia izaten dutela: euskal dantza, bestelako dantzak, aerobic... nahiz eta kirolak gauza onak dakartzala onartzen duten: forma onean mantentzen du, lagunak egiten dira, atsegina da, lasaigarria... Nabarmena da lagun taldeari eta lagunekin egon ahal izateari zenbateko garrantzia ematen dioten, nahiz eta aisiarako aukera gutxi dutela ere esaten duten. Bestalde, adin hauetan, kirolean aritzen den neska gutxiengoa izaten da gehienetan bere lagun koadrilakoen edo gelakoen artean. Hori mutilen artean gertatzen denaren kontrakoa da. Neskak horretaz jabetuta daude eta onartu egiten dute, pentsatuz "mutilak kirolariagoak direla", mutilentzat desberdina dela eta mutilek ez dutela denbora faltagatik kirola uzten.

Neska gazte guztienak diren alderdiak

Gurasoei dagokienez:

Nesken ustea da gurasoei gustatzen zaiela haiek kirola egitea, nahiz eta maila handiko lehiaketetan aritzen direnean bakarrik eskatzen zaizkien emaitzak. Oro har, dirudienez, gurasoek garrantzi handirik eman gabe onartu dute haiek kirol praktika alde batera uztea, baina gero behin eta berriz esaten diete beste zerbait egiteko.

Kanpotik begiratuta, egoera paradoxiko edo *feedback*-eko bat ageri da; izan ere, alde batetik, gurasoek adore eman bai baina indar handirik ez dutela jartzen ematen du, baina, beste alde batetik, neskei ere ez zaie gehiegi gustatzen gurasoak partiduak ikustera joatea, protagonismoa ez dutelako oso gogoko. Isilik laguntzea edo adore ematea eskatzen dutela esan liteke.

Kirol antolakuntzari dagokionez:

Kirol motaren arabera gorabeherak dauden arren, gaurko egunean kirol praktika federatua edo ezer ez egitearen artean dago hautatu beharra. Oro har neskek kirol federatura pasatzeari gogorra eta eskakizun handikoa irizten diote. Ikastetxe batzuek antolatua dute eskola kirola amaitzean kategoria horretara pasatzea, eta soluzio horri esker, lehen unean behintzat, ikastetxe horietan ez da gertatzen uzte masiborik, besteetan (hau da, ezer aurreikusirik ez dutenetan) gertatzen den bezala.

Bestalde, neskek garrantzi handia ematen diote entrenatzaileak haiek ulertzeari, lagun giro onari, jendea ezagutu eta lagunak egin ahal izateari, eta abar.

Gorputz ereduai dagokienez:

Neska gazte gehienek onartzen dute kirola eginda gorputza hobetu egiten dela. Badakite, zein kirol egiten den, gorputz atal bat edo beste gehiago garatzen dela; baina, orokorrean, kirola aukeratzeko garaian horrek ez dituela alde batera edo bestera bultzatzen esaten dute. Hala eta guztiz ere kontraesanak agertzen dira haien diskurtsoan, kirol batzuei buruzko estereotipoak azaltzen baitira, "mutilenak" direlakoan: futbola, igeriketa, hockeya...

Emozio kontuei dagokienez:

Neska gazte gehienek ustez, kirol praktika, osasungarria eta forman egoteko onuragarria izateaz gain, lagunak eta harreman berriak egiteko aukera da. Lehiaketaren bat irabazteak edo ondo jokatu dutela jakiteak oso oroipen onak eta emozio positiboak utzi dizkie gogoan; baina, batez ere, taldean eginiko bidaien esperientzia eta adiskidetasunak ekarri dizkie sentimendu horiek. Oso garrantzitsua deritzote entrenatzailearekin eta taldekideekin harreman ona izateari. Kirol praktika egin duten garaitik gogoan dituzten unerik txarrenak entrenatzailearen errieta edo oihuekin, edota talde barruko "roilo txarrekin" lotuta daude.



(Uliako Gimnastika Kirol Klubak utzitako argazkiak)

Eskola kiroleko koordinatzaileek emandako iritzien laburpena

Multzo honetan ere, ikastetxea zein den, non dagoen, eta zer ezaugarri dituen, era askotako egoerak daudela kontuan izan behar da; izan ere, Bigarren Irakaskuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxe batzuetan ez dago batere kirol programaziorik, eta beste batzuetan, aldiz, ongi ezarritako sistema eta bitartekoak dituzte.

Kirol eskaintza

Koordinatzaile asko konturatzen dira, teorian eta itxuraz eskola kiroleko eskaintza zabala bada ere, talde kirolean praktikan saskibaloia dela Gipuzkoako neska gehienentzat dagoen aukera. Oro har koordinatzaile talde honen iritziz taldeko kirolak kirolariarentzat aberatsagoak dira gizarte eta kultura mailan, baina neska askok nahiago izaten dituzte kirol indibidualak, beharbada –hala diote– horietan zenbait trebetasun lortzen eta “ikasten” dituztela iruditzen zaielako, eta horregatik beste eskolaz kanpoko jardueren antza gehiago hartzen dietelako.

Esaten dute, baita, neskentzat eta mutilentzat eskaintza simetrikoa egitea ez dela nahikoa hasieratik nozitzen duten desberdintasuna gainditzeko, zeren eta, gaur egun mugimenduaren kultura eta jarduera fisikoa oraindik ere gizonezkoen tradizioan errotuta daudelarik, agintzen duten ereduak tradizio horrenak dira, eta ondorioz, diferentziak daude neska eta mutilen artean mugitzeko gaitasunari eta jarduera fisikoari dagokienez, kasu berezi batzuk kenduta. Ildo horretan, mutilengan txikitatit sustatzen da kirola, eta neska asko, berriz, zerotik hasten da zortzi urterekin. Koordinatzaile batzuen iritziz txikiagotan hasi behar litzateke psikomotrizitate jarduerak eta jokoak egiten; bestalde, emaitza parekagarriak lortzera zuzendu beharko litzateke kirol eskaintza, abiapuntuak desberdinak direla kontuan hartuta.

Bestalde, koordinatzaileen iritziz ere, kadeteen kategorian eskola kirolek federaturako jauzia oso handia da, eta bien arteko kategoriaren bat izatea komeni litzateke. Gaurko egunean, alde batetik, ikastetxe batzuentzat ekonomiaren aldetik interesgarria da jauzi hori, kategoriaren ardura alde batera uzten dutelako, eta beste alde batetik, oso ikastetxe gutxi dira kluba sortu eta jarduera federatu horri babesa emateko behar den adinako gaitasun ekonomikoaren dutenak.

Kirolaren balioa gizartean

Multzo honetako pertsona askoren iritzia da gure gizartean kirolari oro har, eta are gehiago eskola kirolari, ez zaiela berezko baliorik aitortzen. Hori agerian geratzen da zenbait jarreratan; adibidez, entrenamenduak, eta baita partiduak ere, joan gabe uzten dituzte justifikaziorik gabe; hori gehiago gertatzen da nesketan mutiletan baino.

Gurasoak heztea, kirolaren helburu eta eskakizunei buruzko gaiak jorratuz, oso garrantzitsua dela diote. Ikastetxe batzuetan dekalogoak egin dituzte –ez bereziki kirolari buruzkoak–, baina oso gutxitan egiten dira gurasoekin bilerak egutegiez gainera gai horietaz ere hitz egiteko. Konturatzen dira, entrenatzaile, ama, aita, ikastetxe eta instituzio, maila guztiak direla beharrezkoak kirol proiektu bat izan dadin. Komeni litzateke eskola kirola aintzakotzat hartzea orain baino gehiago, eta erritual gehiagoz hornitzea –kirolaren festa dela, diploma banaketa dela,...–; azken batean, erakargarriago egitea.

Aipatutako beste gai bat izan da gogoan izan behar dela neska-mutilek helduen rola kopiaitzen dituztela. Horrek, neskek kirolean egitea nahi bada, gizarteko inertzia aldatzea esan nahi du; mutilei dagokienez, berriz, inertziari jarraitzea besterik ez da: joera nora, norbera hara. Ildo horretan nabarmendu dute komunikabideetan ikusten diren kirolari ereduak mutur-muturrekoak direla, gehiegi, eta ez dagoela adin horretako kirolaria zer den adierazten duen benetako profilik. Norabide horretan politika aktibo bat egitearen garrantzia seinatu dute.

Entrenatzaileen gaia

Salbuespenak albuespen, benetako arazoak izaten dira entrenatzaileak aurkitzeko. Onena entrenatzaileak trebeak izatea, irautea, beren lana ezagutzea, heztea, eta zaletzen jakitea izango litzateke, noski, baina errealtatean eskakizunak asko apaldu behar izaten dira.

Argi dute entrenatzaile munduan asko eskatzen dela eta entrenatzaileen multzoa ezin dela osorik boluntarioz osatu. Zerbitzuak nozitu egiten du txarragoa delako, eta, gainera, ezin da eskatu beste eskola jardueretan edo eskolaz kanpokoetan adina. Ordainsari politikan, berriz, ikastetxeak adina aburu dago, eta uniformetasun handiago bat onuragarria litzateke.

Kirol aniztasuna planteamendu interesgarria da teorian, baina horretarako teknikoki prestatutako jende askorik ez dagoela diote; ez dago modulu edo titulazio aproposik. Bestalde, teorian bestela izatea nahi bada ere, praktikan saskibaloia eta futbola egiten dira, gehi hirugarren kirolen bat. Anbizio handiko ideia da, baina boluntario jendean oinarritzen denez, ez du funtzionatzen. Boluntarioekin lan egiten delarik, horiei beste eskolaz kanpoko jardueretako profesional edo teknikariei hainbat eskatzea oso zaila da.

Koordinatzaileek beste bi behar hauek azpimarratzen dituzte: bata, entrenatzaileak prestatzea, eta bestea, teknifikazio saioak oso garrantzitsuak direla, neska gazteek berehala nabaritzen baitute hobekuntza trebetasunetan.

Klubekiko eta beste ikastetxeekiko harremanak

Kasuren batean edo bestean klubera pasatzea oso modu naturalean egiten da, baina gehienetan ez da horrela. Ikastetxe batzuek klubekin hitzarmenak egiten dituzte kirol jakin batzuetarako; ikastetxeetako koordinatzaile batzuek diotenez, hori oso positiboa izan daiteke kirol jakinetan maila ona duten neskenentzat, baina ez gainerakoentzat. Bestalde, badirudi ez dagoela behar hainbateko informaziorik federatutara pasatzeak dakarren eskakizunei buruz. Koordinatzaileen iritziz, Diputazioa neurri batean harrapatuta dago, alde batetik hezkuntza balioak eta bestetik klubaren presioak dituela (Real Sociedadena, adibidez).

Kirol koordinatzaileen ustetan, kirol jarduerak hobeto koordinatzeko oso gauza ona izango litzateke bilerak egiteko ohitura bat ezartzea, bailaraka edo maila zabalagoan. Haien iritziz gehiago zaindu behar da kirolaren praktikan era batera edo bestera esku hartzen duten gizarteko talde eta agenteen arteko komunikazio eskala osoa.

Balioa ematen diote irudimenez jarduteari, dagoenarekin ez etsitzeari, eta eskola kirolaren arloan lortu nahi diren helburuak finkatu eta oinarri horrekin egitarau bat diseinatzeari. Beharrezkoa da helburuak eta metodologia orekatuta egotea. Gaur egun eskola kirolaren ondoren ez dago kirol federatua beste aukerarik, eta uste dute hobe litzatekeela, orokorrean, eskola kirola luzatzea eta gero lehiaketa kirolaz gainera jolas kirolaren aukera ere egotea, izan ere oraingo jautzia handiegia baita eta ez baitago bestelako aukerarik.

Elikadura arazoak eta gorputz irudia

Gai honi buruz jaso ditugun iritziak ikusita, argi dago elikadura arazoek ez dutela garrantzi handirik azterketan parte hartu duten ikastetxeetan; are gutxiago kirolean ibiltzen diren nesketan. Hala ere, ikastetxeetako koordinatzaileen multzo honetako pertsona batek baino gehiagok nabarmendu dute gorputz irudiaren gai hori ez ahaztea garrantzitsua dela, bai kirolariei bai kirolariak ez direnei dagokienez. Benetako kezka dago koordinatzaileen artean kirolari uzten dioten neskenentzat, eta are gehiago neska gazteenetako batzuk kirolean hasi ere egiten ez direlako; horrek esan nahi du neska batzuk guztiz kirolekiko kanpo egongo direla beren eskola bizitza guztian zehar.



(Bera Bera Kirol Klubak utzitako argazkiak)

Gurasoek emandako iritzien laburpena

Azterketan parte hartu duten gurasoak gutxi izan arren, adierazi nahi dugu taldea heterogenotasun handikoa izan dela, lehen aipatutako beste bi multzoak bezalaxe. Heterogenotasun hori eta gai honi buruz ikuspegi desberdinak dituztela oso argi ageri da neskek kirol praktika uzteko dituzten arrazoiei buruzko iritzi eta erantzunetan.

Guraso batzuen ustez erabateko eragina du kirola dela-eta neskari eta mutilari familian tratatu desberdina emateak, hau da, mutilak beti bultzatzeak kirola praktikatzera eta neskak, berriz, oso onak direnean bakarrik. Familiako ereduak garrantzia dutela ere aipatu dute; ez erabakigarria delako, baina bai beren ustez aita edo ama kirolaria izateak seme-alaben jarreretan eragina duelako.

Hala ere, beste guraso batzuk ez dira iritzi horretakoak, beren ustez gaur dagoeneko ez delako diferentziarik egiten mutilenganako eta neskeenganako tratuan, eta familiako ereduak ez dutelako eraginik. Hemen ere beharrezkoa ikusten da alde orokorrak eta testuinguru espezifikokoak kontuan hartzea.

Kirol eskaintza

Oro har, neskekentzako kirol aukera gutxi dagoela eta eskaintza batez ere mutilei begira egina dagoela uste dute. Pertsona batzuek adierazi dute, badaudela eskakizun fisiko handiko jarduera batzuk, bizkortasuna, erresistentzia eta koordinazioa indartzen dituztenak, baina ez direla sartzen eskola kirol gisa irudimenean daukagunean.

Aipatu dute, baita, herri bakoitzak ematen dituen aukerak aprobetxatu behar liratekeela, bai kirol tradizioari eta bai instalazioei eta naturako aukerei dagokienez: itsasoa, mendia, ...

Bestalde, ikastetxearen filosofiak duen garrantzia azpimarratu dute; izan ere, heziketa fisikoko irakasleak beste gai batzuk ere irakasten baditu, eta heziketa fisikoko klaserako ez badu arropa aldatzen..., jarduera fisikoa denbora-pasa bezala hartuko dute ikasleek, garrantzi gutxiko gauza bezala.

Iruditzen zaie, entrenatzaileak ere zerikusia duen arren, gaur egun jarduera gehienbat lehiaketarako pentsatua egoten dela, irabazi edo galtzera zuzendua, batez ere kirol federatuan. Oro har, oso mundu lehiakorra dela uste dute: "ona" bazara, oso ondo hartuko zaitu, eta bestela baztertu egingo zaitu, zeuk utzi arte. Agertu da beste iritzi hau ere, alegia, ez dagoela oso garbi eskola kirolak sakonean zer helburu dituen, edo eskola kirolarekin zer lortu nahi den.

Kirola, gizartearen ikuspegian

Gurasoek badakite eskola kirolaren munduan neska baino mutil gehiago dagoela, eta horren arrazoia beren ustez da neskek beste jarduera batzuei ere begiratzen dietela, gaur oraindik gizarteak neskekentzat egokiagoak ikusten dituelako. Diotenez, adibidez, oso ongi ikusia dago neskek euskal dantzak, aerobic, musika edo marrazketa egitea; mutilek jarduera horiek aukeratzea zailagoa da ordea, eta mutilen ia aukera bakarra kirola da.

Ikusten dute neskek asko eskatzen dietela beren buruari, baina baita kanpotik ere dena ongi egiteko eskatzen zaiela; hala, haiek hobekien doakiena aukeratzen dute, eta jostatzen jarraituko dute ongi egiten badute, baina ikasketetan iritsi ezinik dabilzala edo harreman pertsonaletan kalte egiten diela ikusten badute, utzi egingo dute. Gurasoen ustez mutilarentzat errazagoa da, gizarte taldeak kirolaria indartzen duelako, ikasketetan erdipurdikoa izan arren. Batzuen ustez neskak serioegiak dira eta ez dakite kezka alde batera utzi eta, besterik gabe, gustura ibiltzen.

Horren aldamenean beste gai garrantzitsu bat aipatu dute, alegia neska kirolariari eskatzen zaizkion balioen artean kontraesana dagoela: lehiakorra eta oldarkorra izateko eskatzen zaio, baina balio horiek ez dira izaten eskolako edo familiako filosofian lantzen direnak.

Uste dute komunikabideek ezartzen dutela eredu, eta emakumeak kirol indibidualetan bakarrik nabarmentzen direla: tenisean, mendian, txirrindularitzan..., baina beti emankizunetan lehentasun osoa gizonezkoen talde kirolei emanez. Gainera diote futbola dagoela alde guztietan eta ordu guztietan, eta hori dela neskek zein mutilek ikusten duten kirol eredu bakarria.

Bukatzeko, aipatu behar dugu elkarrizketatutako gurasoek kirol jarduerari baliagarria irizten diotela, diziplina oinarriak sortzen dituelako, beste jarrera batzuk galarazten dituelako, osasuntsua delako eta bizitzako bi alderdi, gizarte harremanak eta jarduera fisikoa, biltzen dituelako. Oro har beharrezkoa edo oso onuragarria deritzote beren seme-alabak kirolen batean aritzeari.

Klubetako teknikari eta zuzendaritzako kideek emandako iritzien laburpena

Kluben artean ere egoera oso heterogeneoa da. Alde batetik, gauza askotan oso desberdinak dira eliteko klubak, lehen mailako ekipoak dituztenak, eta beste guztiak; baina, gainera, klubak barrenean oso filosofia desberdinak daude, nahiz eta gehienek aitortzen duten gehiago begiratzen diotela lehiaketari, jolas alderdiari baino. Nabarmendu dute jolas kirolak federatuak adinako kostua duela dirutan eta jendetan, baina instituzioen aldetik laguntza gutxiago daukela, eta gaur eguneko bitartekoekin ezin direla hori antolatzen hasi.

Klub gehienetan gertatzen da emakumeen presentzia oso gauza berria dela, bai egiturari eta zuzendaritzari parte hartzearen aldetik, bai emakumeen ekipo eta sail espezifikoko izatearen aldetik. Tradiziorik ez izatearen ondorioz, oraindik ere emakumeen kirol praktika etena, jarraitasunik gabea, izaten da maiz, edo ekipoak edo kategoriak edo entrenatzaileak edo beste, orain bai eta gero ez izatea gertatu ohi delako. Jarraitasun ezaren ondorioz, emakumeen saila edukitzeko interesa apaldu egiten da klubetan, gastu handia eta emaitza txikiak ekarri ohi dituelako.

Klubek gaur egun dituzten arazo handienak ekonomia kontuak eta zuzendaritza berritzeko jende gabezia dira; diotenez, jendeak ez du konpromisorik hartu nahi izaten.

Neska gazteek kirola uzteari buruzko iritzia

Jaso dugun iritzi orokorra izan da gaur egun ere gizartean oso sustraituta daudela rola, eta kirol praktikarako gehiago laguntzen zaiela mutilen neskei baino. Klubetako iritziak neskek bizitzako etapa batean ibiltzen dira kirolean, eta gero beste etapa batera pasatzen dira, baina horretan, printzipioz, kirolak ez du lekurik.

Asko azpimarratu dute gaur egun nola neskek hala mutilak gainbabestuta egoten direla, ez zaiela erakusten ezertarako esfortzurik egiten, eta horregatik ere kirol uzte asko gertatzen direla. Gehiegizko babes horregatik, edozein aldaketa, esate baterako entrenatzailea, edo ordutegia, edo ekipoa aldatzea, edo kluba ikastetxea bezain gertu ez dagoelako joan-etorriak egin behar izate hutsa, sekulako arazoa bilaka daiteke.

Klubetan kirol uztea bi une nagusitan gertatzen dela ikusten dute; lehenbizi hasieran, eskola kirolek etorri eta federatua hasten direnean, eta gero, beranduago, Unibertsitatean dabilzanean. Garrantzia ematen diote unibertsitateko ikasketen eta kirolaren artean koordinazio programarik ez izateari. Neska kirolariek une horretan aukera egin beharrean ikusten dute bere burua eta kirola izaten da galtzaile, kirolek eliteko futbolariak bakarrik bizi daitezkeelako.

Nolanahi ere, kirol uztea beranduago gertatzen da kirol indibidualetan taldekoetan baino. Uste dute, baita, kirol federatua eta eskolakoa bateragarriak ez izateak sakondu egiten duela bien arteko zuloa.

Garrantzia ematen diote nesken kirol praktikarako eta kirol jardueran aurrera egiteko gurasoek jokatzeko duten paperari. Bestalde, heziketa fisikoa ez da behar-beharrezkoetako gaia ikasketen curriculumean, beraz etorkizuneko jarduerak planifikatzeko orduan, baliorik gutxi ematen zaiona baztertzen dute lehenbizi. Elkarrizketatuok asko azpimarratu dute aldatu egin behar dela oraindik indar handia duen kirolari buruzko uste hau, alegia, ikasketetan gaizki ibiltzearen errua kirolarena dela, eta hobeto aztertu behar direla uzteko motiboak eta ikusi arazoak benetan non dauden.

Asko azpimarratu dute beste gai bat izan da gazteei gaur ematen zaien kulturari badirudiela ezertan ahalegindu beharrik ez dagoela, eta hain zuzen hori ez dela egia eta, gainera, bizitzan kontrakoa gertatzen dela. Esaten dute, baita, indibidualizazio gehiegi eta oso altruismo gutxi dagoela.

Bestalde, esaten dute kirol federatua askok ez duela jolasarekin eta gozatzearekin lotzen, eta hain zuzen kirol praktikak hortik hasi behar duela, gustatzen; kirol federatuaren irudia, ordea, eskakizunarena eta markak egitearena da, gozamenik gabea. Aldagai horiek elkar lotzen saiatzen ari diren kasu batzuetan esperientzia positiboa dela ikusten ari dira, kirol praktikak jarraitasun handiagoa duelako.

Elikadura arazoak

Gehienek badakite klubean izandako kasuren baten berri, baina diotenez ez da ohikoa; gainera, kirol klubetan berehala ohartu ohi dira horrelako arazoez, kirolean aritzen diren nesken kontrol zuzena egiten delako. Bestalde, diotenez, gai horretan dauden arazoak daudenez, oso erne egoten dira gerta litezkeen kasuez ohartzeko.

Kirol ereduak eta moda

Eragin handia duela diote denek, eta komunikabideek indar handia dutela azpimarratzen dute, pertsonen eredu irrealak zabaltzen dituztela aipatuz. Bestalde, oro har, neska kirolariek gizonen ereduak dituzte. Bat datoz ikastetxeetako koordinatzaileekin esaten eliteko kirolariei bakarrik aitortzen zaiela balioa, gehienak gizonen ereduak eta masa kirolerakoak direla, eta gizartearen irudimen kolektiboan ez dagoela kirolariaren profil errealik.

Askotan aipatu duten beste gai bat izan da neska askok gorputza ezkutatu egiten dutela, eta askori lotsa ematen diela eta arazoak sortzen dizkiela jende aurrean bere burua erakutsi beharrak.

Ondorioak, aurrez egindako hipotesiei jarraiki

1. hipotesia) Kirol munduaren egitura gizonen ereduaren moldatua:

- Gure gizartearen kirola ez neskekin baizik mutilekin lotutako jarduerara bezala ikusten da oraindik. Neskek barneratuta daukate ikuspegi hori, eta aukera berriak aprobetxatzea galarazten die; gainera, berdintasun handiagoa lortzeko benetako oztopoak badaude.
- Salbuespenak salbuespen, oso emakume gutxi ikus daitezke klubetako zuzendaritzan eta kudeaketan, eta oro har kirol praktikan.
- Eskola kirolean hasten direnerako neskatila-mutikoek hartuta dituzte ingurunean sumatzen dituzten ereduarekin lotuta dauden ohitura batzuk. Adin horretan mutikoek badakite baloia jaurtitzeko eta jokatzeko; neskatila askok ez.

2. hipotesia) Eredurik eta bultzagarrikeria ez:

- Kasurik onenean, neska gehienek beren bizitzako aldi labur batekin lotzen dute kirol praktika. Ez dute etorkizunik ikusten kirolean.
- Neskei ez zaie barkatzen baldarrak izatea. Ez da onartzen neska batek baloia jaurtitzeko huts egitea. Edozein neska, kirola egiten badu, "ona" behar du izan; hori ez da mutilekin gertatzen, ordea. Neska "ona" ez bada, normaltzat jotzen da kirolean ez egitea.
- Nabaria da ez dagoela emakume kirolarien eredurik; horretan zeresan handia dute komunikabideek; horiek zabaltzen duten estetika moda pasalekuetako ereduak lotua da.
- Gurasoen laguntzari dagokionez, jokaera anibalente samarra nabari da: kirolak "denbora kendu" egiten diela uste dute, baina "zerbait egin" behar dela ere bai. Neskek kirol praktika alde batera uztea ez da arazo izaten familiako esparruan.

3. hipotesia) Kirolean ez da gozatzen: emozioen mundua kanpoan dago

Hipotesi hau erdizka baieztatu da; kirolean ibili diren neskei begiratuta:

- Jarrera positiboa da. Kirola osasuntsua da; gorputza zaintzeko ona; kirolean lagunak eta harremanak egiten dira.
- Lehiaketekin eta partidak irabazi izanarekin lotuta dauden esperientziak oso positiboak dira.
- Neska asko damututa daude jokatzeko utzi izanagatik; baina, behin hori egin ondoren zaila da berriz praktikara itzultzea.

4. hipotesia) Egiturarik ez, adin batzuetan aurrera jarraitzeko zailtasuna:

- Kirol praktika uzteko arrazoietan, erabakigarria da eskola kirolek kirol federatura pasatzeko urratsa, hamabi urteetan hasita eta, batez ere, hamalau urtetan. Eskola kiroleko egitura oso ahula da adin horietatik aurrera.
- Klubek ez daukate ahalmenik hamalau urtetan eskola kirola amaitzen duten neska guztiak hartzeko. Eskualde eta ikastetxe batzuetatik besteetara egoera desberdina da, baina batzuetan instalazio eta aldagela falta dago. Hori gertatzen den tokietan mutilek dute lehentasuna.
- Taldekide batzuek kirol praktika uzten dutenean taldeak oso ahul gelditzen dira eta desegitera jotzen dute.

5. hipotesia) Programa espezifikorik ez:

- Kirol egitura ez da aldatu, mutilei egiten zitzaizkien eskaintzak neskei zabaldu zaizkie, besterik gabe; batez ere, futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Hori ondo egon liteke lehenbiziko urteetan, baina oso mugatua dirudi hamabi edo hamalau urtetatik aurrera.
- Ikasketetan gehiago ikasi beharra eta harremanen eta aisiaren premia handiagoa sentitzea kadete kategoriara iristean gertatzen zaie; hain zuzen kategoria horretan askotan ez daukate kirol federatuan aritzea beste aukerarik, eta horrek berak ere eskakizun gogorragoa dakar.
- Jolas eta aisia izaerako kirola sustatuko eta bultzatuko duen egiturarik ez dago.

6. hipotesia) Eskolako kirol praktikaren eta kirol praktika orokorraren arteko loturarik ez:

- Informazio gutxi dago kirol federatuta eta klubeko kirol praktikara pasatzeko urratsak zer dakarren azaltzen duenik. Neska gazteek eskola kirolek federatura dagoen jautzia handia dela azpimarratzen dute. Horrek etsipena eta kirola uztea ekartzen ditu.
- Neska askok ez dute kontraesanik ikusten entrenamenduetan eskakizun, diziplina eta seriotasun maila handiz aritzearen eta atseginagatik eta ondo pasatzeagatik jokatzearen artean, irabazteari soilik begiratzen ibili gabe.

7. hipotesia) Lanbide orientazioarekin jarduera egitearen eta kirol praktika uztearen arteko lotura. Unibertsitate eta Lanbide Eskoletako kirol egitura falta.

- Prestakuntzan eta ezagupenak eskuratzean indar handiegia jartzen dela ikusten da; hau da, gai horietan gehiegizko erantzukizuna ikusten da neska gazteengan, eta gehiegizko eskakizuna gurasoengan. Garrantzi gutxi ematen zaio aisialdiko bizipenetan ikasteari.
- Eskolaz kanpoko beste jardueren aldean, ingelesa dela, musika dela, eta abar, kirolari ematen zaio balio txikiena. Jendeari ez zio helarazten kirola garrantzitsua dela bizitza profesionalean aurrera ateratzeko (erantzukizunak hartzen, porrotak onartzen eta taldean lan egiten ikasteko). Kirol jarduerak osasunerako dakartzan onurak bakarrik aipatzen dira.
- Gaur egun kirol jarduera eta unibertsitatekoa antolatuta dauden bezala, zaila da biak bateratzea.

Hobekuntzarako eta esku hartzeko proposamen orokorrak

- ***Kirolaren ikuspegia aldatzea:***

Kirola lehiaketaren ikuspegitik lantzen da batez ere, eta jolasarenetik oso gutxi. Beste balio batzuk bultzatu behar lirateke, eta neskek kirol praktikaren batean has daitezten lan egin. Garrantzitsua da jolasa eta lehiaketa orekatzea.

Honako alderdiak sustatze aldera egin behar da: elkarri laguntzea eta elkarlana, laguntasuna, norberaren gaitasunak, norberaren garapena hobetzea.

Ildo berean, pertsonaren prestakuntzaren aldeko kirol filosofia zabaldu behar da; hori onuragarria da bakarkako nahiz taldeko egoera berrietara egokitzeko eta ikasteko.

- ***Eskola kirola – Kirol federatua:***

Eskola kirolaren praktikan “etena” gertatzen da hamalau urtetan; beraz, kadete kategorian zuzenean esku hartu behar da, eta aurreko kategorietan aurreneurriak hartu.

Aukerak sortu eta bideak prestatu behar dira kirolari “onak” ez diren neskentzat.

Jarduera fisikoaren eta kirolaren arteko lotura aztertu behar da, jarraitasun batean biak ikusiz. Horrek jarduera eskola-ziklo osora zabaltzea eskatzen du.

Bigarren hezkuntzan dagoen egitura ahularen arazoa konpontzen saiatu behar da. Eragin zuzena du, izan ere, nesken kirol uztean.

Aisialdiko edo jolas asmoko kirola praktikatzeko egiturak sortzera joan behar da. Sor daitezke ikastetxeetan, zaila izan arren, edo bestela ikastetxeek eta klub edo federazioek topo egiten duten puntuan.

Orain dugun kirol federatuaren irudia aldatzea komeni litzateke, eta jolasarekin eta ondo pasatzearekin gehiago lotzea. Kluba ondo pasatzeko tokia ere izan dadila proposatzen dute neskek; ez lehiatzera joateko tokia bakarrik.

- ***Taldeko jarduerak sustatzea:***

Ez da inoiz ahaztu behar nerabezaroan funtsezkoa berdinen taldea dela, koadrila.

Kontuan hartu behar da kirolaren eragin gizarteratzailea, oinarrizko gauza bezala: ekipoko afariak, txangoak, bidaiak, aterpetxeetara joatea, eta abar, oso gauza baliotsuak dira adin hauetako neskentzat.

Gizarte harremanak sustatu behar dira, elkarrekin bizitzearen eta beste talde batzuekin kirolean egitearen bitartez. Lagungarria da adiskidetasun handiagoa sortzeko eta familiako ingurunetik kanpo esperientzia berriak izateko.

- ***Txapelketak antolatzea***

Txapelketak asteburuetara biltzea neska gehienek kritikatzten dute. Kirol topaketak antolatzeko era aldatzea proposatzen dugu: lehiaketa eta jolasa elkartzea, gustukoa izango duten eta harrapatuko dituen zerbait bilatuta.

Distira eta ospakizun gehiagoz jantzi behar da eskola kirola. Finalak antolatu, ikasturte bukaerako jaiak egin, eskola kirolaren festa antolatu...

- ***Ikastetxeak koordinatzea:***

Ikastetxe arteko koordinazioa indartu behar da. Askotan ekipoak osatzen ez direlako uzten dute kirol praktika gazteek; koordinazio handiagoa balego, egoera horiek neurri batean konponduko lirateke.

Eskola kirolari balio gutxi ematen dioten ikastetxeetan, kirol praktika beren erantzukizuneko kontua ez dela eta eskola orduetatik eta eskolatik kanpo egin behar dela uste duten ikastetxeetan, kirol praktika bultzatzea garrantzitsua da.

Komeni litzateke ikastetxe guztien artean eskola kirolari buruzko filosofia berdintzeko eta oinarrizko kirola sustatzeko akordio bat lortzea. Baita lehiaketa ikuspegi hutsa izango ez duten jarduera fisikoko eta kirol jarduerako eskaintzak sustatzea ere.

Komeni litzateke kirol praktika eta unibertsitateko ikasketak koordinatzeko programak martxan jartzea.

- ***Hezkuntzaren eremuan esku hartzea:***

Hezkuntza prozesuetan esku hartzea beharrezkoa da; eskurik ez hartzea betiko ereduetan jarraitzeko bidea da.

Aldatu egin behar da oso zabaldua dagoen ideia hau, alegia, kirola hezkuntzaren barruan eranskin bat dela eta ez dela hezkuntzaren benetako osagaia.

Kirol jarduera hezkuntza eremu osoan indartzeko, beharrezkoa da laguntza ekonomikoa, baina, batez ere, laguntza morala eman behar da, adorea.

- ***Teknikazioa. Monitoreen prestakuntza programa:***

Kirol teknikarien eskasia funtsezko gaia da. Egoera horren irtenbidea profesionalizatzea da.

Kirol teknikariak prestatu egin behar dira, eta aitortu egin behar zaie egiten duten lana. Titulazio modulu bat eta gutxieneko soldata bat proposatu behar dira.

Neska entrenatzaileei bultzada ematea proposatzen dugu, prestakuntza eta baliabideak ematea. Jokalari izandakoak oso egokiak izan daitezke monitore titulua eskuratzeko.

Neska zein mutil entrenatzaileek neskatilak eta neska gazteak uler ditzaten, generoaren ikuspuntutik emandako ezagutzak behar dituzte; baita dinamizazio lana egiteko prestakuntza ere, kirolari jai ukitua emanez.

- ***Joko araudiak aldatzea:***

Araudi batzuk aldatu egin behar dira. Alde batetik, ekipoa osatzeko behar den taldekide kopurua adin bakoitzeko egoerara egokitu behar da.

Beste aldetik, kategoria federatu guztiak sortu behar dira; izan ere, zenbait kiroletan, futboleko adibidez, "hamahiru urtetik gora" neska denak batera hartzen dira.

- ***Komunikabideak:***

Gizartea sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko kanpainak egin behar lirateke. Emakume kirolarien irudi gehiago azaldu eta indarra eman (publizitatean, iragarkietan, karteletan), eta horrela jendea ohitu emakume kirolariak ikusten eta neskek ere kirolean egiten dutela pentsatzen.

Emakumeen kirola eta emakume kirolariak komunikabideetan azaldu behar lirateke, batez ere telebistan, eta etengabe. Ez bakarrik eliteko kirolariak gainera, kategoria eta adin guztietakoak baizik.

Emakumeen kirolak zabalkunde handiagoa balu, nesken parte hartzeko gogoia eta adorea suspertuko lirateke.

- ***Gorputz eskemaren onarpena:***

Neska gazteekin landu egin behar da norberaren gorputza eta mugak onartzearen gaia, eta horien aurrean jarrera positiboa hartzen ikasteara.

Neska askok lotsagatik ez dute kirolean egiten. Heldu egin behar zaio adin horretan neskek izaten duten lotsaren arazoari. Oso barrenean eta oso indartsua dute besteen aurrean barregarri geldituko ote diren beldurra, partiduan zehar zer edo zer gaizki egiteko lotsa.

Aztertu eta aldatu beharra dago neskei baldar izatea ez barkatze hori. Oraindik ez da onartzen neska batek baloia jaurtitzean huts egitea. Neurritz kanpo perfektionista izaten erakusten zaie.

- ***Gurasoekin lan egitea:***

Gurasoekin lan egitea behar-beharrezkoa da. Adierazi behar zaie gurasoek interes gutxi agertuz gero, alabek jarduera hori garrantzi gutxikoa dela interpretatzen dutela.

Gurasoek jarrera batzuk aldatzea ere beharrezkoa da, eta lehiaketaren eta jolasaren arteko oreka ulertzea.

Gurasoekin batera heldu behar zaio mutilen eta nesken kirolaren aurrean ikuskera desberdinak izatearen gaiari; konponbideak bilatu eta kirol egituraketan zer aldaketa proposatu aztertu behar da.

- ***Azterketa eta ikerketa gehiago:***

Emakumeen eta kirolaren arteko lotura gutxi aztertu izan da gure kultura eremuan.

Analisi horietan gehiago sakondu behar dela ikusten da, honako gai hauek analizatuz:

Zergatik neska multzo batzuek ez dute inoiz kirolean egin. Zergatik ez ditu erakartzen kirolak; zer irudi dute kirolaz.

Gipuzkoako eskualde eta herrietako alderdi espezifikoak sakonkiago landu. Horrela aukera izango litzateke benetako errealitateak ezagutzeko, jakingarria baita bai egiturazko hutsuneak non dauden jakiteagatik, bai ondo funtzionatzen dutela diruditen antolaketa moduak hobeto ezagutzeagatik.

Kirol praktikan ari diren neska multzoekin ere lan egin behar da. Horien esperientziak ezagutzuz gero, kirolak zer ematen dien eta zer arazo dituzten jakinez gero, hobeki planteatuko dira praktika oro har bultzatzeko xedez egin beharreko kanpaina eta programak.

Azterlanean parte hartu duten ikastetxeak eta klubak

BIDASOA

Ikastetxeak:

AMA GUADALUPEKOA IKASTETXEA (HONDARRIBIA)

TXINGUDI IKASTOLA BHI (IRUN)

EL PILAR – MARIAREN LAGUNDIA (IRUN)

Klubak:

IRUNGO BIDASOA

TXINGUDI C.B.

OIARTZUN ALDEA

Ikastetxeak:

JESUSEN BIHOTZA - TELLERI IKASTETXEA (ERRETERIA)

PASAIA LIZEOA IKASTETXEA (PASAI DONIBANE)

ORERETA IKASTOLA (ERRETERIA)

DONOSTIA:

Ikastetxeak:

SAN PATRICIO (DONOSTIA)

USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA (DONOSTIA)

EKINTZA IKASTOLA (DONOSTIA)

SAN IGNACIO DE LOYOLA (DONOSTIA)

ZURRIOLA IKASTOLA (DONOSTIA)

Klubak:

GIMNÁSTICA DE ULIA

ATLÉTICO BERA BERA

ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN

DONOSTIALDEA

Ikastetxea:

LANGILE IKASTOLA (HERNANI)

KOSTALDEA

Ikastetxea:

ANTONIANO IKASTETXE POLITEKNIKO (ZARAUTZ)

Kluba:

C.D.ZARAUZ

UROLA

IRAURGI kirol elkarte (AZPEITIA)

LAGUN-ONAK kirol elkarte (AZPEITIA)

DEBABARRENA

Ikastetxeak:

**MOGEL ISASI BHI (EIBAR)
SANTA MARIA DE LA PROVIDENCIA (EIBAR)
ELGOIBAR IKASTOLA (ELGOIBAR)**

Kluba:

ELGOIBARKO ESKUBALOI ELKARTEA

DEBAGOIENA

Ikastetxeak:

**SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA (ARRASATE)
TXANTXIKU IKASTOLA (OÑATI)
TELESFORO ARANZADI IKASTOLA (BERGARA)**

Kluba:

ALOÑAMENDI kirol elkarte

GOIERRI BEHEA

Ikastetxeak:

**JAKINTZA IKASTOLA (ORDIZIA)
LOINAZPE IKASTOLA BHI (BEASAIN)**

Klubak:

**BEASAINGO KIROLAREN LAGUNAK
ORDIZIA KIROL ELKARTEA**

ORIA

Ikastetxeak:

**LASKORAIN IKASTOLA (TOLOSA)
JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA (VILLABONA)
HIJAS DE JESUS IKASTETXEA (TOLOSA)**